



Joan den urteko jaietako arrandegietako kalejirako irudi bat. AMARA BERRIKO KARMENAK

Amara Berriko karmenak, urte osoa ospatzeko

Asteazkenean hasita, eta igandera arte, Amara Berrin ere ospatuko dituzte Karmengo jaiak. Amara Berriko auzo elkarteak antolatuta, hainbat jarduera izango dira auzokideentzat, tartean, arrandegiei omenaldia eta danborrada.

Xalba Ramirez Cruz

Badira berritasun gehiegirik behar ez duten egitarauak. Amara Berriko auzo elkarteak sustatuta, Karmengo jaiak ospatuko dira beste urte batez auzoan eta Nerea Albisu antolatzaileak azaldu duenez, azken urteetako egitarauarekin jarraituko dute aurten ere.

«Ez da berritasun handirik, baina ez da behar ere. Jai xumeak dira gureak,

eta horrekin gustura gaude», azaldu du Albisuk. Bere iritziz, «lehen fundamendu gehixeago zuten jaiak», alegia, jende gehiago zebilela antolakuntzan parte hartzen. Lantalde txikia izanagatik, ordea, egitarau polita osatzen dute urtero, eta aurten ez da gutxiagorako.

Omenaldia arrain saltzaileei

Auzo berri xamarra da Amara Berri

eta ez dago tradizionalki arrantzari lotuta. Hala ere, kale izen askok arrantzarekin lotura dutela eta, hasi ziren Karmenak ospatzen —Baleazaleak, Ternuako arrantzaleak...—. Duela urte batzuk, gainera, auzoko arrandegiei omenaldia egiten hasi ziren.

«Niretzat, egun garrantzitsuena da Karmengo Ama Birjinaren eguna

Auzoko arrantzale eta arrain saltzaileei omenaldia egiteaz gain, urtean zehar auzo elkarteak egindako lana goraipatuko dute

da, asteazkenean. Omenaldia egiten diegu arrain saltzaileei, lore sortak banatuz eta oso hunkigarria da» azaldu du. «Beti gabiltza auzoko komertzioei eskean, baina eman ere egiten dugu», dio, pozik.

Auzoan jai mordo dute beste la, izan Super Xagu jai batzordeak urrian antolatzen dituenak, Ikasbidek antolatzen dituen sanjoanak eta Amara Berri eguna. Horregatik karmenak, bere xumetasunean, ekarpena dira auzotarren bizitzan. «Antolatzaileok, behintzat, ondo pasatzen dugu», dio umorez Albisuk.

Baina ez hori soilik. Ikasturte osoan zehar auzo elkarteak egindako lanketa eta borroka eta esfortzuak ospatzeko data bat dela baieztatu du Albisuk. «Auzo elkarte hainbat sailetan banatuta dago, eta bakoitzak bere lana egiten duen arren, asteen behin dena jartzen dugu komunean», azaldu du. Honela, auzo elkarte barruan daude jai batzordea, topoaren inguruko lanketa egiten duen taldea, Gobernu Zibila kultur etxe bihurtzeko lanketa egiten ari direnak eta zaintza taldea. «Azken honek, auzoko jende helduarekin lan egiten du». Jaiak, beraz, guztia batu eta ospatzeko baliatzen dituzte: «Topoaren inguruan lanketa handia egin dugu aurten, eta hori ospatu behar dugu». ●



ASTEAZKENA 16

Kalejira omenaldia auzoko arrantzaleei,
Soinu Alai trikitixak alaituta.

OSTIRALA 18

18:30

Herri dantza Gregorio Ordoñez kalean.

19:30

Sardina jate herrikoia Gregorio Ordoñez
kalean.

12:00-21:00

Feriak.

LARUNBATA 19

09:00

Donostiako Udalaren txistulari
banda.

11:00

Aurpegi margoketa eta haur jolasak Gregorio
Ordoñez kalean.

12:00

Zirika Zirkusen 'Egunon sikiera' ikuskizuna
Gregorio Ordoñez kalean.

12:00

Bote eta toka txapelketak Gregorio Ordoñez
kalean.



Izen-emateak irekita 25/26

- Talde txikiak
- Ziurtagiridun irakasleak, esperientzia zabalarekin
- Mailak: hasiberrientzakoa, erdikoia eta aurreratua

www.pilatesdonostia.com
Eustasio Amilibia 6, bajo (Amara Berri)



688 654 803



18:00

Karmengo danborrada auzoko hainbat kaleetatik.

22:30

ETO DJ-a.

IGANDEA 20

Soinu Alai trikitixa auzoko hainbat kaleetatik.

10:30

Auto klasikoen konzentrazioa Gregorio Ordoñez kalean.

11:30

Txiki Txoko taldea Gregorio Ordoñez kalean.



11:45

Amara Berriko kaleetatik ibilbidea.

12:45

Poteo elegantea Marzelino Soroa plazan.

13:00etatik aurrera

Aperitiboa Mamelena elkartearen eskutik, Eibar plazan.

19:00

Son de Hoy talde kubatarra. Jaien amaiera.



XANTI
JATETXEA

Ondo pasa Amara Berriko karmengo jaietan!

Anoeta Pasealekua, 30, 20014 Donostia ✉ xantijatetxea@gmail.com ☎ 943-45 74 36



Urrats
euskaltegia

**Ondo pasa
Amara Berriko
Karmengo jaietan!**



www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia